

Erri osoak euki dau gaur kartaren bat, neuk ikusi dot. Aitaren kartak, eskutitzak, bakar-bakarrrik gordeten ditu zorro baten, berak irakurteko. Ama, karteru ori okerra, gaiztoa, txarra dozu, ziur nago !

... Baiña, origaitik, ama, etzaitez illun egon. Begira, biar or urreko errian azoka eguna da. Doala neskamea ta erosi dagizala luma ta papera. Neronek idatziko dautzudaz aitaren karta guztiak. Eta ikusiko dozu, zelan ez dozun aurkitzen uts bat bera be.

Zuzen-zuzen idatziko dautzut A'tik K'raiño. Zer dala-ta, barre zuk, ama ? Zuk uste dozu nik ez dakidala aitag baizen ondo idazten ? Ikusiko dozu, ba ; ol-ertzez marratuko dot papera, ta arduratsu idatziko dot, izkiak (letrak) oso andi egi ñik.

Eta amaitzen dodanean, aitaren antzeko arlo-te izango nazala uste dozu karteru motz orren zakura idazkia botatzeko ? Nik neuk ekarriko dautzut bertatik, eta pizkaka-pizkaka irakurten lagunduko. Karta-zaiñari ez yako eder, badakit nik, kartarik onenak zuri emotea !

GIZURENA

Egizu zuk, ama, itzul-bira bat dagigula ta errialde ez-ezagun arriskutsu bat zearkatzen dogula. Zu jarrita zoi az zeure aulki-agan eta ni zure

alboan nabil taka-taka neure zaldi margodunear: Eguzkia jatxiz doa, arratsa illunduaz. Gure aurrean, bakar ta arre, Yoradigui basamortua edatzen da. Ingurumari legor ta arriabar oro. Zuk pentsetan dozu izutua : "Seme, ez dakit nun sartu garean". Eta nik diñotzut: "Ez zaitez bildurtu, ama".

Zidorra estu ta bigurra da, ta sasiak oiñak urratzen dabez. Abelgorriak itzuli dira dagoneko lau zabaletatik euren auzo-okuilluetara. Gero ta illun nasiagoak dira zeru ta lurra, orrezkero ez dogu ikusten nundik goazan. Beingoan, zuk dei dagistazu, aopeko esanaz : "Zer argi ete da, seme, an ur-ertzean dagoan a ?"

Alarao izugarri batek zart illun-sabelean, eta itzal amilkor batzuk datorkiguz gaiñera. Zu osoan kukurtzen zara zeure aulki-agan eta jainkoen ize-nak bir-esaten dozuz otoizka. Lepo-gain zaroezan Inorroiak elorri ostean gordetan dira izu-ikaraz. Nik oiudagitzut: "Ama, ez ikaratu, ni emen naukazu-ta !"

Gizerailleak gero ta urrago dagoz, ule-latz, igun (lantza) luzez orniduta. Nik deadar: "Geldi or, gaizkiñok ! Oinkada bat geiago ta illak zarie !" Beste garrasi lazgarri bat, eta bide-lapurrak gaiñean doguz. Zuk, zirgit egiña, eskutik oratuta diñostazu : "Ene seme ! ene bizia ! Jainkoarren, iges emetik". Nik erantzuten dautzut: "Ama, begira. Ikusiko dozu !"

Orduan, aztalez, astintzen dot neure zaldia, ta onek jauzi, saltu dagi asarrekor. Zaratatsu alkar

joten dabe nire ezpata ta beso-babeskiak. Burrukan diardut ikaragarri; zuk, ama, ikusiko ba'zendu zeure aulki orretatik, ikararen ikaraz izoztuko zintzakez. Batzuk iges doaz, beste batzuk zati eginda jausten dira. Zuk, bien bitartean, ba-dakit nik, usteko dozu zeure aulki ortan jarrita, bakar-bakarrik, zure semea illa dala. Ontan ni biurtzen naz, dana odoldua, ta diñotzut : "Ama, amaitu da burrukea". Zuk orduan, jarleku barrutik urten, zeure bular gaiñean estutu ta diraustazu mosukatzen nozula: "Onezkero, zer izango nintzakean, ene semeak zaindu ez ba'nindu?"

... Egunero jazoten dira onango gauzak. Zergaitik gerta ez bein onango zerbait? Liburuetako ipuin bat lez izango litzake. Nire anaiak esango leuke: "Baiña, al ete? Nik onen erkintxo uste nebana !" Eta erriko gizonak bein eta barriro: "Zorion andia izan zan, egiaz, umea bere amagaz ego-tea".

32

ATZENA

Ama, ni ba-noa, ordua dot-eta... Zeure umearen billa, goiz bakarreko illuntasun kardenean, zuk zeure besuok oge-gaiñez luzatzean, nik esango dautzut: "Umerik ez daukazu or ! ". , . Ama, ni ba-noa.

Aize bigun biurtuko naz, zu laztantzeko; zu baiñu artzera zoazanean, ni ur-balaka izango, zu mosukatuz iñoiz be aspertu barik. Ekaitz-jasa